

## Zergatik da garrantzitsua **Enpresa-prospekzioa**?

Enpresa-prospekzioak, enpleguaren bilaketa aktiboaren testuinguruan, plangintza, bilketa eta analisiaren bitartez **lanera sartu nahi duen pertsonari enpresa-ehunaren inguruko informazioa eta beharrak** ematen dizkio.

Prospekzioaren garrantzia ulertzeko **enplegu bat lortzeko bideak ugariak direla** argitu behar da lehenik, hala ere bide hauek bit alde handitan banatu ditzakegu:



Ezkutuko merkatua **publikoki deitu edo iragartzen ez diren** lanpostu multzoek osatzen dute, eskaintzen diren lanpostuen portzentaje handi bat osatzen dute.

Hau da, enpresek eskaintzen dituzten lanpostu asko ez dira iragartzen. Lan eskaintza hauetara **harreman pertsonalen bitartez** soilik sartu daiteke. Kontaktuak lana bilatzeko biderik eraginkorrenak izaten jarraitzen dute, baina hauek kudeatzen jakin behar da.

Horrek guztiak, hasiera batean, enpresa egokiak aurkitzeko zein enpresaren kultura jarraituz pertsonaren neurrirako harremanak egiteko garaian informazioaren bilaketa sakona egitea eskatzen du.

Ageriko merkatua

Ageriko merkatua **publikoki iragartzen diren eskaintzek** osatzen dute, beraz, enplegua pertsona eskatzaile guztiek eduki dezakete bere berri, koska begiak ondo irekiak edukitzean dago.

Ageriko eta ezkutuko merkatuaren arteko konparazio analisiak lana lortzeko aukerak optimizatzeko bigarren merkatu hori ezagutu behar dugula pentsarazten digu. Horretarako alde askotako informazioa lortzea ezinbestekoa da, adibidez enplegu bilaketa enpresa zehatz horretan edo horietan zentratu duzunean.

## Enpresa-prospekzioan **Informazio-iturriak**

### ▲ Harreman pertsonalak

Enpleguaren bilaketan harreman pertsonalak laguntza emozional garrantzitsua izan daitezke, lan-merkatuaren inguruko informazioa eta zehazki interesatzen zaidan enpresaren informazioa eman diezadaketela alde batera utzi gabe.

Hasiera batean harreman sare baten ez duzula irudituko dizun arren, hausnarketa lasai eta antolatuta baten bidez sare hau handitzen doala ikusiko duzu.

Enpresa-prospekzio prozesuan harreman pertsonalekiko gomendio batzuk:

- ▶ Lehenik eta behin zen lan mota interesatzen zaigu argi edukitzea da eta ze prestakuntza, esperientzia eta abileziak eskain ditzakegun.
- ▶ Gure jarrerak ez du izan behar gupidagatik lana eskatzen duenarena, sektore zehatz batean lan-merkatua ezagutzea interesatua dagoenarena baizik. Prozesua ez da hasiera batean eman dezakeen bezain neketsua. Eta ez

izan beldurrik gogaikarriaren itxura emateagatik: ez zara lana eskatzen ari, informazioa bakarrik baizik.

► **Sare sendoekin hasi:** lagun eta familiarrek, beraien egoera sozio-profesionalagatik, enpresak ezagutu ditzakete.

► Benetan garrantzitsuena, **lehenasunezko enpresa sektorean lanean dauden profesionalak ezagutzea** da, haiek pertsonak kontratatzeko ardura daukaten pertsonekin harremanetan egoteko aukera gehiago baitituzte eta, beraz, lanpostu baterako zubi lana egin dezakete. Batzuetan, gure ezagunek profesionalenganaino ematen gaituzte, baina hau batzuetan ezinezkoa da. Hori dela eta hauek **beraien ohiko gunetan bilatzea gomendagarria da: azokak, aretoak, kongresuak, profesionalen elkarte eta elkargoak, konferentziak, ikastaroak, seminarioak...** Leku hauetara sarritan joatea, enplegu bilaketarako informazio erabilgarria lortzeko aukeraz gain enpresa mundu zein profesionalarekin ohitzeko aukera ematen dizu gainera.

► Gure bilera eta deien erregistro bat edukitzea zein pertsona bakoitzarengatik lortu dugun informazioa eta berarekin berriro biltzea adostu dugun idaztea beharrezkoa da. Baina tipularen gertuko kapekin bakarrik ez da konformatu behar. **Helburua**, batez ere, **pertsona hauen bitartez hobeto kokatuak dauden pertsonekin harremanetan jartzea** da, hauengatik **enpresa eta lanpostu zehatzen informazioa lortzeko.**

## ► **Komunikazioa eta hedatzea**

Hainbat dokumenturen bitartez interesgarriak zaizkigun ekintza profesionalen informazioa lor dezakegu eta enpresa zein erakundetan enplegu aukerak sor daitezke.

► **Telefonoen direktorioa (Páginas Amarillas, QDQ...):** balizko enplegatzaileen zerrenda bat osatzeko iturri paregabeak dira. Enpresen oinarriko informazioa ematen digute (enpresen izenak, helbideak eta telefonoak). Aurkibidea erabili zure profil profesionalarekin interesatuak egongo liratekeen enpresa motak identifikatzeko. Oharrak hartu eta gero bilatu kategoria bakoitzaren barnean, zerrenda pertsonal bat osatzeko. Direktorio hauek paperean zein formatu digitalean aurki ditzakezu: [www.qdq.com](http://www.qdq.com) / [www.paginas-amarillas.es](http://www.paginas-amarillas.es)

► **Argitalpen berezituak:** lanbide batzuetako argitalpen berezituak kontutan hartzea komenigarria da; hauek lanpostu zehatz bati lotutako albiste eta gertaerekin eguneratua egoten laguntzen digute. Hemen ere interesa daukagun eremu profesionaleko enpresa garrantzitsuak aurki ditzakegu.

► **Lana eskaintzen duten enpresen gida:** Enpresa Unibertsitate Fundazioak (FUE, Fundación Universidad Empresa) urtero argitaratzen duen gida bat da, bertan lana eskaintzen duten enpresa garrantzitsuen informazio zabala azaltzen da

- ▶ **Elkargo profesionalak:** hauek sektoreko enpresen inguruko informazioa eman gaitzakete, batez ere beraiengana profesional bila joan diren enpresena.
- ▶ **Prensa idatzia:** idatzizko hedabideak lanaren bilaketan beste informazio iturri garrantzitsu bat dira. Eguneroko prentsan lan eskaintza eta eskaeren iragarkiak azaltzen dira, egunero ezean, egunkari batzuk asteburuan iragarkiak elkartu egiten dituzte, batez ere igandetan. Erabili daitekeen eta egin behar duzun beste bilaketa eremu bat da. Enpresa askorentzat prentsa langileak lortzeko ohiko bidea da. Zenbaitetan pertsonalaren hautaketan espezializatuak dauden enpresek jartzen dituzte iragarkiak. Profilak aurretik zehaztuak daude eta ondorioz erantzunak ugariak izaten dira. Tokiko prentsan zure bizilekuaren inguruan dauden enpresen informazio zehatzagoa lortuko duzu, inprimaketa nazionalako lan-eskaintza ostera, zabala eta dibertsifikatua da, lan-merkatuko informazioarekin orokorki hartuta.
- ▶ **Internet:** komunikazio bitarteko hau enpresa-prospekzioarako beste bide bat da, benetako iraultza eragin duena; direktorio, profesionalen web orriak, lan eskaintzak hedatzeko web orriak... argitarapenaren bitartez enpresen informazio zehatza lortu dezakegu.
- ▶ **Radio y televisión:** zure zonalde geografikoko enpresa-ehunaren inguruko informazioa tokiko irrati eta telebistetan lortuko duzu bate zere. Enpleguaren gaia lantzen duten irrati eta telebista tarreak existitzen dira, hauek eskaintza batzuk hedatzen dituzte eta guzti.

## ▶ Zerbitzuak eta erakundeak

- ▶ **CIVEX (Euskal Industria eta Esportatzaileen katalogoa):** 6500 industria enpresa zein zerbitzu aurreratutako eta enpresa esportatzaile elkartzen ditu. Katalogoak enpresa hauek identifikatzeko informazioa biltzen du, kokalekua, jarduera eta produktuak, lortutako sari zein kalitate ziurtagiriak eta jarduera esportatzailea (produktuak, helmuga merkatua, ezarpenak...). Enpresen informazioaz gain, beraien interneteko helbideak azaltzen dira, beraz, katalogoa hauetako enpresa bakoitzak bere web orrian ezarrita dauzkan edukietarako sarbidea bilakatzen da. ([www.civex.net](http://www.civex.net)).
- ▶ **INEM:** izaera publikoko enplegu bilaketa iturri bat da [Instituto Nacional de Empleo (I.N.E.M.)], beren bulegotan enplegu bilaketaren eskatzaile aktibo gisa izena eman dezakezu, horretarako zure herri edo bizilekutik gertuena dagoen bulegoan eman behar duzu izena. Erakunde honen bitartez bideratzen diren lan-eskaintzetera sarbidea izateko pausu hau ezinbestekoa da. Erakunde publiko honetan enpleguaren bilaketa aktiboa zentratu nahi dituzun enpresen pistak lor ditzakezu.
- ▶ **Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua:** Eusko Jaurlaritzak Autonomi erkidegoko enplegu eskatzaileen lan-merkaturatzea lortzeko politika guztien, jarduera-ildoen

eta zerbitzu Okupazionaleri integrazioa lortzeko eskaintako zerbitzua da. **Lanbide Euskal Kolokazio Zerbitzua:** Eusko Jaurlaritzako Kolokazio Zerbitzuak lana bilatzen ari direnen eta enpresen beharren arteko bitartekari prozesu bat ahalbideratzen du. LANBIDEko elkarlanerako zentroetako pertsonal teknikoak enpresen direktorio bat eman diezazukete. Aldi berean, Lanbidek bere web orrian enpresen web orri bat dauka, zeinean bilaketa irizpideak jarduera profesionala eta kokaleku geografikoa direnak. ([www.lanbide.net](http://www.lanbide.net)).

► **Euskadiko Merkataritza Ganbarak:** Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoen garapen ekonomikoa sustatzea dute helburu. Jarduera ekonomikoko sektore guztietako enpresa eta enpresariz osatua dago, hauetan beraz, probintzian ezarrita dauden enpresen ezagutzaz abala izango dute.

► **Aldi baterako lanen enpresa:** enpresa erabiltzaileen esku, aldi baterako izaerarekin, beraiengandik kontratatutako langileak uzten dizkien enpresak dira. Erakunde pribatuak dira eta dirua irabazteko asmoa daukate, beraien helburua beste enpresetan ustekabeko edo urgentziatzeko pertsonal beharrak aldi baterako langileekin asetzea da. Era guztietako lanak eskaintzen dituzte, edozein kategoria profesionalean, esperientziadunak ala gabeak eta lanaldi osokoak edo laburrekoak. Zerbitzu hauek eskaintzen dituzten enpresa batzuk: Adecco, Alta Gestión, Bicolan, Denbolan, Laborman, Manpower, People, Randstad, Tempo, W-Zitap...

► **Giza Baliabideen Aholkularitzak:** lan-merkatura gerturatzeko beste aukera bat hautatze edo aholkularitza enpresak dira. Zerbitzuen sektoreko enpresa pribatuak dira, kasu honetan zerbitzua pertsonalaren hautaketa da, hautaketa hau hiru fasetan gauzatzen da: profil profesionalaren azterketa, hautagaien bilketa eta hautaketa frogatzea eta elkarriketen bitartez. Beraien jarduerak lan-eskaintza zehatz baten hautaketa kudeatzetik merkatuaren egoera ezagutzeko azterketak egiteraino doa, azken hau beraien datu baseak osatzeko. Hautatze prozesuan aritzen diren enpresa batzuk: Human Management Systems, Grupo Oteic, S.A, Attest Consulting, S.L., Araldi, Bic-Berrilan, IBM Global Services España, S.A., LKS, prospektiker, Montaner & Asociados, Sinergos...

► **Tokiko Garapen Agentziak.**

► **Gazte informazio bulegoak.**

► **Emakume zein kultur elkarteak.**

► **Sindikatuak.**

► **Enpresa eta profesionalen elkarte eta elkargoak.**



## Enpresa prospekzioaren **planifikazioa**

Enpresa prospekzioaren plangintza bilaketaren plangintza orokorraren testuinguruan kokatu behar da, zeinaren tresna garrantzitsua **enpleguaren bilaketa aktiboaren agenda** den. Jarraian **adibide** bat:

Enplegu bilaketa ekintzak:

1. Informazio bilaketa, prospekzioa.
2. Prentsa iragarki bati erantzuna.
3. Auto-kandidatura bertaratuz.
4. Auto-kandidatura gutun bidez.
5. Auto-kandidaturako jarraipen dei edota bisitak.
6. Enplegu-enpresetara bisitak.
7. Aldi baterako enplegu-enpresetara bisitak.
8. INEM bisitatu.
9. OARSOALDEA B.A. bisitatu.
10. Harreman sareen mobilizazioa.
11. CVaren eta aurkezpen gutunaren osaketa.
12. Laneko elkarrizketak.
13. Sare bidezko bilaketa.

\_\_\_ URTEKO \_\_\_ ASTETIK \_\_\_ ASTERA

EGUNA	EKINTZA (lehentasunez ko hurrenkeran)	EMANDAKO DENBORA	DATA	LEKUA (enpresa, harremanerako persona...)	HELBIDEA ETA TELEFONOA	LAN- POSTUA	OHARRAK / EGITEKE
ASTELEHENA							
ASTEARTEA							
ASTEAZKENA							
OSTEGUNA							
OSTIRALA							
LARUNBATA							

## LANERAKO FITXAK

### 1. FITXA: Harreman pertsonalen erregistroa.

Jarraian zentzu honetan modu antolatu eta sistematikoan lan egiteko balizko tresna bat aurkezten dizugu:


Enpresa interesgarrien inguruan informazioa eman diezadaketan harremanen zerrenda osatu:	
<p><b>Sare sendoak:</b> gertuko eta konfiantzazko harremanez osatuak daude (familiarrak eta gertuko lagunak).</p>	<p><b>Sare ahulak:</b> sare zabalak dira, laguntza moduan: ezagunak, enplegu teknikariak, Giza Baliabide sailtako arduradunak, profesionalen elkargoko langileak, irakasle ohiak, lankide edo ikaskide ohiak, gure sektorean lan egiten duten profesionalak.</p>
<p><b>Izen-abizenak:</b></p> <p><b>Harremanetarako ohiko bidea</b></p> <p>☎: _____ @: _____</p> <p><b>Lortutako laguntza mota eta informazioa:</b></p> <p><b>Beste harremanetarako lotura?:</b></p> <p><b>Hurrengo harremana/ Egiteke dauden gaiak:</b></p>	<p><b>Izen-abizenak:</b></p> <p><b>Harremanetarako ohiko bidea</b></p> <p>☎: _____ @: _____</p> <p><b>Lortutako laguntza mota eta informazioa:</b></p> <p><b>Beste harremanetarako lotura?:</b></p> <p><b>Hurrengo harremana/ Egiteke dauden gaiak:</b></p>
<p><b>Izen-abizenak:</b></p> <p><b>Harremanetarako ohiko bidea</b></p> <p>☎: _____ @: _____</p> <p><b>Lortutako laguntza mota eta informazioa:</b></p> <p><b>Beste harremanetarako lotura?:</b></p> <p><b>Hurrengo harremana/ Egiteke dauden gaiak:</b></p>	<p><b>Izen-abizenak:</b></p> <p><b>Harremanetarako ohiko bidea</b></p> <p>☎: _____ @: _____</p> <p><b>Lortutako laguntza mota eta informazioa:</b></p> <p><b>Beste harremanetarako lotura?:</b></p> <p><b>Hurrengo harremana/ Egiteke dauden gaiak:</b></p>
<p><b>Izen-abizenak:</b></p> <p><b>Harremanetarako ohiko bidea</b></p> <p>☎: _____ @: _____</p> <p><b>Lortutako laguntza mota eta informazioa:</b></p> <p><b>Beste harremanetarako lotura?:</b></p> <p><b>Hurrengo harremana/ Egiteke dauden gaiak:</b></p>	<p><b>Izen-abizenak:</b></p> <p><b>Harremanetarako ohiko bidea</b></p> <p>☎: _____ @: _____</p> <p><b>Lortutako laguntza mota eta informazioa:</b></p> <p><b>Beste harremanetarako lotura?:</b></p> <p><b>Hurrengo harremana/ Egiteke dauden gaiak:</b></p>



<b>Izen-abizenak:</b>  <b>Harremanetarako ohiko bidea</b>  ☎: _____ @: _____  <b>Lortutako laguntza mota eta informazioa:</b>  <b>Beste harremanetarako lotura?:</b>  <b>Hurrengo harremana/ Egiteke dauden gaiak:</b>	<b>Izen-abizenak:</b>  <b>Harremanetarako ohiko bidea</b>  ☎: _____ @: _____  <b>Lortutako laguntza mota eta informazioa:</b>  <b>Beste harremanetarako lotura?:</b>  <b>Hurrengo harremana/ Egiteke dauden gaiak:</b>
--	--

## 2.FITXA: Enpresen katalogoa.

Jarraian bilaketa aktibo bat egin ahal izateko enpresen katalogo bat edukitzea oso lagungarria da, horretarako enpresen fitxa bat azaltzen zaigu, enpresa-prospekzioan lagungarria izango zaiguna. Helburua ez da atal guztiak betetzea, aukeren bilaketan baliagarriak izango zaizkigunak baizik.

	<b>IDENTIFIKATZEKO DATUAK</b>
Enpresaren izena:	
📍 Kokaleku geografikoa:	
🌐 Web orrialdea:	
📞 Harremanetarako telefonoa:	
💻 Helbide elektronikoa:	
⤴ Harremanetarako pertsona eta enpresan duen kargua (ardura kontratazioan):	
<b>INFORMAZIO INTERESGARRIA</b>	
Nondik lortzen dut enpresako informazioa? (informazio iturria)	

Ze sektore profesionaletako kidea da enpresa?	
Zein dira lanpostuak?	
Ze lan-posturekin bat egiten du nire profil profesionalak?	
Zeintzuk dira sartzeko ezinbesteko baldintzak?, Zeintzuk dira aintzat hartzen diren baldintzak?	
<b>Ezinbestekoak:</b>	<b>Aintzat hartzen direnak:</b>
Enpresan dauden lan-postuekin nire profila batera ezina den kasutan, ze modutara bete nitzake beharizan horiek?, zein izango zen "autosalmentarako" estrategiarik egokiena?	
Zein da langileak hartzeko ohiko modua?	
<input type="checkbox"/> INEM. <input type="checkbox"/> Lanbide. <input type="checkbox"/> Neure harremanak. <input type="checkbox"/> Enpresa-elkargoak. Zeintzuk?: _____ <input type="checkbox"/> Prentsa iragarkiak. Ze hedabide?: _____ <input type="checkbox"/> ETTak. Zeintzuk?: _____ <input type="checkbox"/> Giza Baliabidetako Aholkularitzak. Zeintzuk?: _____ <input type="checkbox"/> Besteak: _____	
Zein da enpresako pertsonal beharren aurreikuspena?	
<input type="checkbox"/> <b>Behar puntualak:</b> <input type="checkbox"/> Ordezkapenak <input type="checkbox"/> Bajak <input type="checkbox"/> Oporrak <input type="checkbox"/> Ezohiko produkzio puntak <input type="checkbox"/> Aldizkako produkzio puntak <input type="checkbox"/> Besteak: _____ <input type="checkbox"/> <b>Hedatze beharrak.</b>	

## BILAKETA EKINTZEN ERREGISTROAREN JARRAIPENA

Ze bilaketa ekintza burutu dituzu?

Egindako ekintzak	Data	Egiteke dauden ekintzak
Auto-kandidatura:  <input type="checkbox"/> Bertaratuz. <input type="checkbox"/> Telefono bidez. <input type="checkbox"/> Gutun bitartez.		
Auto-kandidaturaren jarraipena.		
Erantzundako lan- eskaintzak.		
Parte hartu dud hautaketa prozesuak.		
Lortutako harreman berriak.		
Beste.		

**Oharrak:**